

LABek salatu du bete gabe jarraitzen duela EAEko Hezkuntza Saileko sukalde eta garbiketako 60 urtetik gorako langileei lanaldia egokitzeko akordioak

Kontzentrazioa egin du sindikatuak Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzaren aurrean.

Orain urtebete, 2023ko azaroaren 9an, Hezkuntza Saileko sukalde eta garbiketako mahai negoziatzailean akordioa sinatu genuen, oraindik bete ez dena. Aurreko Hezkuntza Sailak ez zuen ezer garatu eta egun dugun ekipoak, guretzat nahikoa ez den proposamena bidali zigun ostiralean. Honen arabera ez da protokolo espezifikorik garatu, eta neurririk hartzekotan 2025ean aplikatuko lirateke.

Akordioan, sukaldeko eta garbiketako langileen osasuna zaintzeko Hezkuntza Saileko Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak protokolo espezifiko bat garatuko zuela jasotzen zen.

Protokolo horrek ondorengoa ezarri behar zuen, aurrez aipatutako zerbitzuek langileei dei egingo ziela 60 urte bete ondoren lan-eremuan haien osasuna babesteko neurriak hartzea egokia den erabakitzeko, prebentziozko neurriak zein neurri aringarriak. Bere lanpostuari esleitutako funtzioak eta zereginak behar bezala garatzeko, egokitzapen horietan lanaldia herenean murrizteko neurriak sar litezkeelarik.

Sailak iaz emandako datuen arabera, neurriak 120 langileri eragingo lieke sukaldeetan eta 94ri garbiketetan. 214 langile hauek urte guztian zehar deiaren zain egon dira euren jarduna aurrera eramanez.

Hezkuntza Saileko kategoria hauetan lan egiten duten langileak dira lan baldintza prekarioenak dituztenak. Kolektibo feminizatua da, egunero garbiketetan 8 ordu eta sukaldean 8,5 orduko lan fisikoa egiten dutenak. Paradoxikoki, hauex da Hezkuntza Sailean adinagatik neurri aringarririk ez duen kolektibo bakarra.

Lanpostuen arriskuaren balorazio generikoa ez ezik, pertsona bakoitzaren banakako jarraipena egitea ere eskatu eta sinatu zen. Gero eta beharrezkoagoa den zerbait, lanpostuan urte asko daramatzaten eta adinean aurrera doazen langileei buruz ari garelako. Lanpostu hauek duten berezitasun eta lan kargen ondorioz, gero eta gehiago dira osasun arazo fisiko zein psikosozialak dituzten langileak.

Gauzak horrela, gatazka kolektiboa jarrita eta bitartekaritza saioak emaitzarik gabe bukatuta, Hezkuntza Sailaren kontrako demanda sartzeaz gain, mobilizazio dinamika hasi dugu.

Bestalde, aipatu behar dugu Hezkuntzako Saileko gainontzeko kolektiboetan ez bezala, honetan oraindik Hezkuntza Sailak ez duela lan hitzarmen berria negoziatzeko zirriborrorik aurkeztu. Honek guztiak argi erakusten du sailak zerbitzuetako langileekiko duen jarrera.

Euskal Herrian, 2024ko urriaren 28an